



**Arartekoaren 2013ko uztailaren 5eko ebazpena. Horren bidez, Berangoko Udalari iradokitzen zaio beharrezko neurriak har ditzan, aisialdiko gazte-lokalek sortutako eragozpenak saihesteko.**

### Aurrekariak

1. Berangoko herritar batek jakinarazi digu hainbat gazte taldek bere etxebizitzatik gertu dagoen merkataritza-lokal bat gaizki erabiltzen dutela, lokala ez baitago egokituta han egiten dituzten jardueretara, eta horren ondorioz, kalte larriak jasaten ari dela.

Adierazi du lonjan zaratak eta danbatekoak entzuten direla eta borrokak izaten direla, inolako kontrolik gabe, eta hori guztia jasanezina egiten zaiola. Horrez gainera, ez dago ados lokal horien itxiera-orduarekin, gaueko ordutegian zaratagatiko eragozpenak izugarri areagotzen baitira.

2. Esan du erreklamazio ugari aurkeztu dituela Udalean 2011ko abendutik, eta tokiko erakundeak, printzipioz, esan ziola arazoa berehala konponduko zela, lokal horien erabilerari arautzeko aurreikusita zuten udal ordenantza behin betiko onartu orduko.

Hala ere, interesdunak azpimarratzen duen bezala, ordutik hainbat hilabete igaro diren arren, Berangoko Udalak ez du onartu ordenantza, ez du bilatu irtenbide bakar bat ere bizi duten arazo larria konpontzeko, eta egoera okerrera doa egunetik egunera, uda-garaian lonja horiek gehiago erabiltzen baitira.

3. Kexaren sustatzaileak jakinarazitako gogoeten arabera, Arartekoak erabaki du 1400/2012/28 erreferentziadun kexa-espeditzea izapidetzea eta informazioa eskatu dio Berangoko Udalari, aipatu lonjaren erabilerak sortutako eragozpenengatiko salaketekin lotuta tokiko erakundeak zer jarduketa egin dituen jakiteko. Era berean, jakin nahiko genuke Udaletxeak aurreikusita duen lokal horien erabilerari buruzko udal ordenantza onartzea, interesdunak esaten zuenaren arabera.
4. Erantzuteko, Berangoko Udalak, iazko urteko irailaren 9an, alkatetzak sinatutako txosten bat eman zigun, bai eta aipatutako gaiari buruzko hainbat dokumentu ere. Txostenean, egiaztatu genuen Udaltzaingoak lokala ikuskatu zuela, kexaren sustatzaileak erreklamazioak aurkeztu zituen geroztik, eta lortutako emaitzak kontuan hartuta, arkitekto teknikoak lokalari buruzko txosten bat egin zuela, eta kexaren sustatzaileari horren guztiaren berri eman ziola.

Are gehiago, udal arkitekto teknikoak sinatutako txostenean, 2012ko martxoaren 22ko data duenean, jasotakoaren arabera:





*"1. Con fecha de 27 de enero de 2012 se emite acta por parte de la Policía Municipal de Berango con relación a la actividad sita en local ubicado en (...). Según la misma, la lonja se utiliza como local de reunión de un grupo de jóvenes.*

*2. El mencionado local carece de ningún tipo de licencia de actividad. De este modo se deberá proceder al cese de la actividad.*

*3. Finalmente, se recuerda que según lo establecido en la Ley 3/1998 General de Protección del Medio Ambiente, para el desarrollo de una actividad en el local será necesaria la obtención de licencia de Actividad, adecuándose a la normativa y medidas correctoras que le sean de aplicación, garantizando el cumplimiento de la normativa vigente, principalmente en materia de aislamiento acústico."*

5. Bestalde, egiaztatu dugu udal ordenantza hasiera batean udaleko osoko bilkuran onartu zela, 2012ko martxoaren 22an egindako bilkuran.

lazko apirilaren 30ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta epe bat jarri zen, pertsona interesdunek zegozkiena legazioak eta erreklamazioak aurkez zitzaten tokiko araudi horren inguruan. Beraz, une hartan aurkeztutako alegazioak aztertzen ari omen ziren, eta ebatzi bezain laster, ordenantza behin betiko onartzeko zegozion izapidetzearekin aurrera egitea aurreikusita omen zuten.

Edonola ere, alkateak berak emandako dokumentuan azpimarratzen duenaren arabera: *"Arazoak sortzen dituzten lokalak lau direla (...), eta ukitutako auzotarrei konponbide bat eman behar zaiela, egoera hauek salatzen dituztelako."*

6. Gaiari buruzko ezer berririk jakin gabe hainbat hilabete igaro ondoren, eta interesdunak azpimarratzen zuenez lokalak eragozpenak sortzen zizkiola, erakunde hau berriz jarri zen harremanetan Berangoko Udalarekin, datu gehiago lortzeko gai honi buruz eta kasu honen inguruan zer neurri hartu ziren jakiteko.
7. Kudeaketa horiei erantzunez, Berangoko Udalak jakinarazi digu oraindik ez dela behin betiko onartu udal ordenantza hori, zuzenketa eta alegazio ugari aurkeztu baitira eta udalerriko herritar asko ordenantzaren aurka baitaude. Edonola ere, tokiko erakundea jarduera ugari bultzatzen ari da, prozesu horretan inplikaturako alderdi nagusien artean adostasun handiagoa lortzeko: hau da, administrazioa, lonja horien auzokoak eta jabeek, ordenantza ahalik eta azkarren onartzeko.
8. Hala ere, gaur artean ditugun datuak ikusita, ez dirudi neurri bakar bat ere hartu denik salatutako lokalak eragindako behin-behineko eragozpenak murrizteko, ez eta lokala arautzeko ezer egin denik ere. Beraz, printzipioz ulertu behar dugu **salatutako jarduera orain arteko baldintza beretan dagoela.**





Udalak kexa honekin lotutako arazoa ahalik eta azkarren konponduko duela agindu duen arren, hauek egin behar ditugu:

### Gogoetak

1. Gaur artean ditugun datuen arabera, beharrezkoa da azpimarratzea erakunde honek oso egokitzat jotzen duela gazte-lonjen funtzionamendua arautzeko ordenantza bat onartzea, tokiko erakundeek horretarako erabateko eskumena baitute, 7/1985 Legearen 25. artikulua xedatutakoaren arabera (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jardunbidearen oinarriak arautzekoa).
2. Hala ere, adierazi nahi dugu udal araudia behin betiko onartzeko izandako zailtasunak edo atzerapenak inolaz ere ez direla arrazoi nahikoa Berangoko Udalak kexaren xede den arazo nagusia konpontzen parte har ez dezan –**lokal jakin batek eragindako irregulartasunek sortutako zaraten eragozpenak- eta dirudienez, haren erregularizazioa eskatu gabe.**
3. Gai horren inguruan, lehen aipatutako udal txostenak azaltzen zuenaren arabera, azpimarratu behar da biltzeko lokal mota horiek **kalifikazio-erregimenera lotutako jarduerak** direla, gure legediak jasotzen duen aurreikuspenen arabera.
4. Ildo horretan, gogoratu behar da Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian (2414/1961 Dekretuak, abenduaren 30ekoak, onartu zuen) zehazten zela zer jarduera hartuko ziren gogaikarritzat, osasungaitzat, kaltegarritzat eta arriskutsutzat, eta jarduera horiek ekiteko administrazioak esku hartu beharko zuela. Gai horri dagokionez, 1. artikuluan zehazten zen jarduera batek kalifikazio bati lotuta egon behar zuela zehazteko filosofia. Zehazki, agindu horrek hau adierazten zuen 1961. urtean:

*“el presente Reglamento, de obligatoria observancia en todo el territorio nacional, tiene por objeto **evitar** que las **instalaciones, establecimientos, actividades, industrias, almacenes, sean oficiales o particulares, públicos o privados, a todos los cuales se aplica indistintamente en el mismo la denominación de ‘actividades’, produzcan incomodidades, alteren las condiciones normales de salubridad e higiene del medio ambiente y ocasionen daños a la riqueza pública o privada o impliquen riesgos graves para las personas o los bienes”.***

Era berean, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren 2. artikulua zehazten zuen *“quedan sometidas a las prescripciones de este Reglamento, en la medida que a cada una corresponda, todas aquellas “actividades” que a los efectos del mismo sean calificadas como molestas, insalubres, nocivas o peligrosas, de acuerdo con las definiciones que figuran en los artículos siguientes e independientemente de que consten en el nomenclátor anejo, que no tiene carácter limitativo”.*





5. Halaber, deserosotasuna eta eragozpenak zerk sortzen zituen identifikatzean, hau zehazten zuen:

*“serán calificadas como molestas las actividades que constituyan una incomodidad por los **ruidos** o vibraciones que produzcan o por los **humos, gases, olores, nieblas, polvos en suspensión o sustancias que eliminen**”.*

6. Horren ondorioz, **ondorio kaltegarriak edo eragozpenak edo deserosotasunak sor ditzaketen ondorioak sor baditzake lokalaren funtzionamenduak**, jarduera mota horien instalazioari eta mota horiek egiteari berariazko erregimen bat aplikatu behar zaio. Hala, jardueraren erabilera arrunta neurri zorrotzagoetara lotzearen helburua da interes orokorra babestea. Kasu honetan, interes orokorra izango litzateke establezimendu horien inguruan bizi diren pertsonen kalitateko ingurune bat izateko eskubidea.
7. Udaltzaingoak lonja horietan egiten den jarduera zehazteko egin dituen ikuskapenetan, egiaztatu da lokal horietan telebistak, musika-aparatuak eta beste etxetresna elektriko batzuk eta inguruetan bizi diren pertsonen eragozpenak eta deserosotasunak sor dakizkiekeen beste tramankulu batzuk daudela, kasu honetan egiaztatu den bezala.
8. Beraz, lokal horiek bete behar dituzten **neurri teknikoei** dagokienez, Arartekoak irizpide honi jarraitu dio: lokal horiek gutxienezko segurtasun-, higiene- eta intsonorizazio-baldintzak bete behar dituzte. Hori guztia lokal horien funtzionamendu arruntak inguruko auzokoei sor dakizkiekeen kalteak saihesteko, bai eta erabiltzaileentzat arriskuak murrizteko ere.
9. Zentzu horretan, 171/1985 Dekretuak (171/1985 Dekretua, ekainaren 11koa, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak ontzat ematen dituen) aitortzen du arauaren erabiltze-eremuan sartzen direla txokoak **eta kultura- eta atsedeen-elkartek** edaritegiak eta jatetxeak epigrafearen baitan.

Egia da, erakunde honetara bidalitako dokumentazioan esaten den bezala, *“los locales localizados en el municipio no tenían ni cocinas, ni ejercen una actividad que no fuera de reunión y ocio”*. Edonola ere, azpimarratu behar da ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak ezartzen duela etxebizitza baten beheko solairuan kokatutako kultura- edo elkarte-guneek dantza edo kantu-jarduerak egiten ez dituztenean edo musika dutenean, dekretu horrek jasotako betekizun teknikoak bete beharko dituzte, **soinu-immisio eta aireztapen-sistemei** dagokienez.

Beraz, bistako konparaziozko bidegabekeria izan daiteke neurri berak ez eskatzea lokal mota horiei, bi kasuetan biltzeko antzeko jarduerak egiten direla





uler baitateke, gazte-aisialdirako lokal horiek gaueko ordutegian ere funtzionatzen duten larrigarriarekin.

10. Hori dela eta, udal txostenean aipatzen denaren arabera eta 3/1998 Legearen 55. artikuluan (3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babestekoa) xedatzen denarekin bat, instalazio mota horiek jarduera sailkatuak dira, inguruneari, pertsoneri edo beren ondasunei kalteak sor baitiezazkiokete, edo pertsoneri kalteak sortzeko edo eragozpenak eragiteko arriskua sor baitezakete.

Zehaztu behar da ingurumena kontrolatzeko erregimen hori erreformatu egin zela 3/1998 Legearen aldaketa indarrean jartzean, 7/2012 LEGEA, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa, onartu ondoren (apirilaren 30eko EHAA). Iazko urteko maiatzaren 1etik dago indarrean lege hori.

*Jarduera horiek ingurumenean eta pertsonen osasunean duten eraginaren arabera, araudi horrek aurreikusten du ez dela beharrezkoa baimen bat izapidetzea eta nahiko adela titularrek **jarduera sailkatuarena urretiko jakinarazpen bat** izapidetzea, II. eranskineko B. Atalaren 8. eta 14. puntuetan aurreikusitakoaren arabera.*

Garrantzitsua da adieraztea baimenetik salbuetsiz ez dela murriztu nahi etxebizitzetarako lurretan instalatu nahi duten jarduera sailkatuak behar bezala ezartzearekin batera ezarri beharko litzakeen berme-erregimena. Aurretiko jakinarazpenaren erregimenak jarduera horien sustatzaileak egiten ditu erantzule. Sustatzaileek ziurtatu beharko dute jarduerak ondo funtzionatzen dutela eta aplikatu beharreko **zuzenketa-sistemak aurreikusi** dituela, jarduerak zehazki nolakoak diren kontuan hartuz, batez ere funtzionamendu gorabeheratsua izatean ondoko auzokoei kalte larriak eragin diezazkioketenean.

11. Edonola ere, beharrezkoa da gogoratzea herri-administrazioek jarduera sailkatuen ingurumen-legeria kontrolatzeko eta egokitzeko esku hartu behar izatea ez dela eskumen-kontu hutsa, baizik eta antolamendu juridikoak esleitzen dizkien ahalmen publikoak gauzatzea dakarrela berekin, interes orokorraren defentsan eta legeriatik eratorritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko.
12. Hala, 3/1998 Legearen 64. artikuluan (3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa) aurreikusten denaren arabera, tokiko organoak izango dira jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko ardura izango duten organoak, eta jarduera horien funtzionamenduan irregulartasunen bat hautemango balute, alkateek aukera izango dute dekretuz agintzeko legez kontrako jarduerak etetea edo ixtea, lizentziak ezeztatzea edo legez ezarritako isunak jartzea.





13. Lizentzia eskatzea, edo esku artean dugun kasuan bezala, aurretiko jakinarazpenaren izapidetzea egiteko betebeharra Berangoko Udalaren eskumen saihestezina da, eta ezin da hartu legeztatutzat herri-administrazioak jardueraren berri zuela argudiatuz.
14. Arautu gabeko jardueren aurrean, Arartekoak beretzat hartu du Auzitegi Gorenaren jurisprudenzian erabilitakoa: ezkutukotzat hartzea lizentziarik gabeko jarduerak, edo hala dagokionean, aurretiko jakinarazpenaren izapidea egin ez duten jarduerak, eta udal agintaritzak hura ixteko eskubideari zuzenbideari lotuta egongo da, kautelazko neurri gisa, 3/1998 Legean (1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babestekoa) ezarritako prozedurari jarraiki, bere funtzionamendua baimentzen ez den artean. Hala, Auzitegi Gorenaren 1988ko uztailaren 10eko (Ar 4195), 1996ko azaroaren 5eko (RJ19996/8271) eta 1998ko ekainaren 26ko (RJ 1998/6947) sententziak azpimarra daitezke.
15. Lokala legezatu gabe dagoela edo aurretiko jakinarazpenaren izapidea gauzatu gabe duela (kasu honetan gertatzen den bezala) egiaztatu ondoren, 3/1998 Legearen 65. artikulua (1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babestekoa) agintzen du tokiko erakundeek honela jokatu behar dutela:
- a) **Jarduera legezta baldin badaiteke**, tokiko erakundeak titularrari eskatuko dio bere egoera legezatzeko, eta xede horretarako, epe bat emango dio, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, sei hilabeteko baino luzeagoa izan ezingo duena. Gainera, tokiko erakundeak jarduera itxi ahal izango du, baldintzek horrela gomendatzen badute, interesdunarekin audientzia egin ondoren.
- b) **Jarduera ezin baldin bada legezatu** indarrean dagoen araudi sektoriala edo dagozkion udal ordenantzak ez betetzeagatik, jarduera itxiko da, interesdunarekin audientzia egin ondoren.
16. Horrez gainera, jarduera legezkatuko bada, bitartean jardueraren funtzionamendu irregularrak sor ditzakeen kalteak saihesteko, agindu horren 105. artikulua zehazten du **kautelazko neurriak** hartu behar direla zentzu honetan:
- “Salbuespenez, eta zigor-espeditentia irekitzeari hasiera eman aurretik, administrazio publikoek zigorizaerarik ez duten ondoko kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte edo lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako edozein ekintzaren ustezko arduradunari neurri horiek harrarazi ahal izango dizkiote:*
- a) *lanak edo jarduerak bertan behera uztea.*  
b) *aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak prezintatzea.*  
c) *ingurugiroko kaltea zabal ez dadin zuzentze, segurtasun*





*edo kontrolerako beste edozein neurri.”*

17. Orain arte azaldutakoaren arabera, gazte-aisialdirako lonjen funtzionamendua arautzeko egin nahi den udal ordenantza oraindik onartu gabe dagoen arren, argi geratu da tokiko erakundeak ingurumenaren arloko legezkotasuna eta kaltetutako hirugarrengoen eskubideak errespetatzeko neurri eraginkorrak dituela.
18. Lokal horien funtzionamendu irregularrak inguruan biz idiren pertsonen bizi-kalitatea kalte dezake eta kaltetzen du. Auzokoek ez dut ezertan horrelako kalterik jasan behar.

Horrez gainera, **sortutako hots-kutsadurak** –kexaren xede nagusia- eragin zuzena du Konstituzioaren 15. artikuluan eta 18. artikuluko 1 eta 2 atalek aitortutako oinarrizko eskubideetan (RCL 1978, 2836) Konstituzio Auzitegiak haiei buruz egiten duen interpretazioan, batez ere 119/2001 sententzian (KAE 2001, 119) eta, ondoren, 16/2004 sententzian (KAE 2004, 16), Giza Eskubideen Aldeko Europar Auzitegiaren bizitza pribatuari buruzko jurisprudentziaren arabera, Giza Eskubideen Aldeko Europar Konbentzioaren 8. artikulukoa (RCL 1979, 2421), hauek oinarri dituela: 1994ko abenduaren 9ko sententzia (López Ostra Espainiako erresumarena urka kasua) (TEDH 1994, 3), eta horren atzetik, 1998ko otsailaren 19ko sententzia (Guerra eta beste batzuk Italiaren aurka kasua) (TEDH 1998, 2) eta 2003ko uztailaren 8ko sententzia (Hatton eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurka) (TEDH 2003, 40).

Horrenbestez, udalek bermatu behar dute baimendu dituzten jarduerak, eta are gehiago, baimendu ez dituztenek, beren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko murrizketak eta neurriak betetzen dituztela. Horretarako, zehatzeko neurriak hartu behar badira, atsedena eta herritarrentzako kalitateko ingurumena errespetatzen ez duten jokabideak edo jarrerak baztertzeko, indarrean dagoen antolamendu juridikoak behar adina bide eskaintzen ditu, herritarren interes orokorra babesteko.

Hori dela eta, azaldutako guztia oinarri hartuta, eta 3/1985 Legearen, otsailaren 27koaren, Arartekoa sortu eta arautzen duenaren, 11.b) artikuluan agindutakoari jarraiki, iradokizun hau egiten diogu:

## IRADOKIZUNA

3/1998 Legearen 65. artikulua arabera (3/1998 Legea, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa) eta bidezkoak izan daitezkeen isunak baztertu gabe, (...) jardueraren arduradunari eskatzea jarduera legeztatzeko, eta horretarako, sei hilabetekoa baino gehiagokoa ez den epe bat ematea.

Prozesuak irauten duen bitartean eta interesdunarekin audientzia egin ondoren, jarduera ixtea, edo horren orde, auzokoei eragozpenak sortzen dizkieten





elementuak (ikus-entzunezko ekipoak, telebista, etab.) zigilatzea edo kentzea, bai eta ordutegia murriztea ere, salatzaileen eskubideak zaintzeko.

Gazte-aisialdiko jarduera horiek berariaz arautuko dituen udal ordenantza izapidetzen jarraitzea.

